

KANALAK

Kanalei buruz hitz egiten dugunean, lehenik publizitatea egingo genuke gimnasio ezberdinen arreta lortzeko eta publizitate deigarria litzateke honela ahalik eta azkarren interesatuek gurekin kontaktatzeko aukera izango lukete.

Horrez gain hainbat gimnasioren jaberekin hitz egingo genuke aurrez aurre gure produktua aurkeztu eta honek erosi nahiko lukeen jakiteko.

Gure produktua saltzeko haren abantaila guztiak definituko genizkioke erosleari eta kalkuluak azaldu bere inbertsioa segurua izango dela helarazteko eta engainatuta senti ez dadin.

Geroago hornitzaile batek gure produktua erosi nahiko balu garraio bidez egingo genuke produktuaren banaketa makina handiak baitira eta ezin baitira indar mekaniko gabe mugitu.

Produktua saltzea lortuko bagenu kontaktuan jarraituko genuke bezero horrekin bai emailez, telefonoz, bileren bitartez...